

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 19an hartutako erabakiaren laburpena: 2020-2021ean Gazte Informatzaileen Sarea Programa bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdia**

BDNS (Identif.): 513443

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

#### **Lehen. Onuradunak**

Gazte Informatzaileen Sarea izeneko programa hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Erdi mailako berriazko Lanbide Heziketa eta Goi mailako Lanbide Heziketa, 2020-2021 ikasturtean eskainiko dituzten Gasteizko ikastetxeei zuzenduta dago.

#### **Bigarrena. Helburua**

Gazte Informatzaileen Sarea kudeatu eta dinamizatzeko diru hornidurak emateko modua arautzen da deialdi honetan. Eta deialdiaren xedea, hauxe da: gazteei beren garapen pertsonalerako baliagarri gerta dakiekeen informazioa eskuratzeko modua eskaintzea, eta informazio horren bilaketan eta zabalkuntzan parte hartaraztea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 10.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

2020ko irailaren 24 arte.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 19an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria*  
**ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO**